

OBRA, EGINTZA URBANISTIKO ZERBITZUAK ETA BESTELAKO ZERBITZU TEKNIKOAK EMATEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. ARRAZOIAK ETA IZAERA

1. artikulua

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusiarekin bat etorriz, Udal honek Hirigintzako Zerbitzuak emateagatiko tasa ezarri eta exijitzen du, 4. artikuluan xedatzen diren tarifen arabera.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

2. artikulua

Hauxe da esku-hartzearen eta konprobatzearen udal jarduera teknikoa zein administratiboaren tasaren zergagaita: udal mugartean egingo diren eraikuntza jarduketek eta lurzoruaren erabilerek (Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Eusko Legebiltzarreko ekainaren 30eko Legearen aipatuta) polizia eta eraikitzeko hirigintza arauak eta gainontzeko xedapenak betetzen dituzten ala ez egiaztatzea, eta ikuskaritza, kudeaketa eta planeamendu urbanistikoarekin lotuta dauden zerbitzuak ematea eta baita zerbitzu teknikoak eskatzen dituzten gainerako zerbitzuak ematea ere.

2. Ez dira tasa honen pean egongo etxebizitzaren barrualdean egiten diren apainketa hutseko, artatzeko eta konpontzeko obrak, baldin eta ez badiete egiturazko elementuei ukitzen eta ez badira kontainerrak jarri behar ez.

III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK

3. artikulua

1. Subjektu pasibo dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 34 artikuluek aipatzen dituzten entitateak, eraikuntza, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2. Jarduera administratiboa edo zerbitzua subjektu pasiboari dagokiola edo hark hau ukitzen duela ulertuko da, subjektu pasiboaren jarduera edo aldaketaren ondorioz, zuzen zein zeharka, segurtasun, osasun zein hirigintza arloko zioak zein berari dagozkion bestelakoak direla eta Udalak jarduerak edo zerbitzuak ofizioz burutu behar dituztenean ulertuko da

3. Zergadunaren ordezkio izango dira, beti, obra horien eraikitzaile eta kontratistak.

4. Subjektu pasiboaren zerga betebeharez erantzungo dute, solidarioki, Zergen Foru Arau Orokorraren 41. artikuluek aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak.

Ordezko erantzukizuna izango dute ere sozietateen administrariak, sindikoak, kontu hartzaileak, porrot-espedienteen kitatzaileak, konkurtsoak, sozietateak eta entitate oro Zergeri buruzko Foru Arauaren 42. artikulua zehazten duen neurrian.

IV. OINARRIAK ETA TARIFAK

4. artikulua. Oinarri zergagarria:

1. Oinarri zergagarria izango da:

a) Lurzoruaren partzelazio, birpartzelazio, batuketa eta zatiketa egiteko lizentziak izapidetzen den kasuan AZALERA.

b) AZALERA zabortegeiak, bete lanak, lur erauzketak eta lur-berdinketak burutzeko lur mugimenduak egiten direnean, salbu eta horrelako lanak urbanizazio proiektuetan zehazturik eta programaturik daudenean.

c) Bide publikotik ikusteko moduan ipinita dauden kartelen KOSTU BENETAKOA ETA EGITEZKOA.

d) Lur mugimendu, oin berriko obra, erakintzak botatze eta eraikinen egiturak edo kanpoaldeko itxura aldatzeko obretan, obra zibilaren KOSTU BENETAKOA ETA EGITEZKOA.

e) Eraikinen estreinako erabileraren eta eraikinen erabilera aldatzearen kasuetan, etxebizitzetan, lokalaren edo instalazioaren KOSTU BENETAKOA ETA EGITEZKOA.

Adierazitako kostuetatik kanpo uzten dira makinaria eta industria eta makinaren instalazioei dagokiena.

Beharreko udal lizentziarik gabe, eta kasua balitz, aurretiko jakinerazpenik gabe do erantzukizunezko adierazpenik gabe egindako obren, instalazioen edo eraikuntzen oinarri zergagarria finkatuko du Udal Arkitektura Zuzendaritzak behin-behinekoan, eta gero obren Zuzendari teknikoak aurkeztuko duen beharreko ziurtagiriaren ondoriozko likidazioa, dagokion Kolegio Profesionalak ikus-onetsita.

5. artikulua.- Tarifa.

1.- a) **idatz-zatian** kontenplatuta dauden kasuetan, zerga-kuotaren zenbatekoa kalkulatu da, lurzoruaren partzelazio, birpartzelazio, batuketa eta zatiketa kontuan hartuta, honako tarifak aplikatuz:

- Azaleko 10.000 m2 arte	82,00€
- Azaleko 10.001 eta 25.000 m2 bitartean:.....	164,01€
- Azaleko 25.001 eta 50.000 m2 bitartean:.....	245,88€
- Azaleko 50.001 eta 100.000 m2 bitartean:.....	327,83€
- Azaleko 100.000 m2 baino gehiago:.....	409,83€

2.- **b) idatz-zatian** kontenplatuta dauden kasuetan, zerga-kuotaren zenbatekoa kalkulatu da, zabortegi, betelan, lurak beheartzeko lan eta lur-berdinketa lana ukitzen duen azalaren arabera, eta 0,071€/metro karratuko tarifa aplikatu da.

3.- **c), d), e) idatz-zatietan** kontenplatuta dauden kasuetan eta izaera antzekoetan, zerga-kuotaren zenbatekoa kalkulatu da obrak edo instalazioak burutzeko aurrekontua kontuan hartuta, honako tarifa honen arabera.

Zerga honen tarifa honakoa izango da:

- Aurrekontuko 601,01 € arte:	9,35€
- Aurrekontuko 601,02 eta 1.502,53 € bitartean:	18,66€
- Aurrekontuko 1.502,54 € eta bitartean 3.005,06 €:	37,31€
- Aurrekontuko 3.005,07 eta 6.010,12 € bitartean:	47,50€
- Aurrekontuko 6.010,13 eta 60.101,21 € bitartean:	95,02€
- Aurrekontuko 60.101,22 eta 120.202,42 € bitartean:	190,90€
- Aurrekontuko 120.202,43 € baino gehiago: aurrekontuaren %0,47a.	

4. Tarifak aplikatzeko arauak:

a).- Egindako obren aitorten- eta ikuskapen-eskubideengatik, lehenengo okupazioa baino lehenago, azken kuotaren %10a hartuko da, udal tasaren behin betiko likidazioa galarazi gabe.

b) Transmisioa denean, baldin eta hori ez bada udal jarduera berria, ematen denean likidatutako tasaren %30a sortuko da.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren 10.3 artikulua xedatzen duenaren arabera, subjektu pasiboak ordaindu behar duen zergaren hobari-zenbatekoari %90 kenduko zaio hirigintzako lizentzia emateagatikotasaren kontzeptuan

VI. SORTZAPENA

6. artikulua

1. Tasa sortuko da, eta tasa sortzearekin batera hura ordaintzeko betebeharra ere bai, zergagai den udalaren jarduera hasten edo zerbitzua hasten denean. Horretarako, udalaren jarduera hori hirigintzako baimenaren eskabidea egiten denean hasten dela, baldin eta subjektu pasiboak eskabidea berriaz egiten badu, aurretiko jakinarazpena edo erantzukizunezko adierazpena aurkezten badu, edo ofizios jardutekotan, zerbitzua edo jarduera prestatzen hasten denean.

2. Obrak baimenik gabe, edo aurretiko jakinarazpena edo beharreko erantzukizunezko adierazpena aurkeztu gabe hasi edo gauzatu badira, obra horiek baimentzeko modukoak direnentz jakiteko Udalak jarduerari noiz ekiten dion, orduantxe sortuko da tasa; eta hori, obra horiek baimentzeko edo, baimenik ezin emateko modukoak badira,

horiek eraisteko bidera daitekeen administrazio espedientea hasi ala ez alde batera utzita.

3. Udal egite-agindu bati jarraiki obrak hasita daudenean edo burututa daudenean, tasa sortuko da zerbitzua benetan ematen denean edo udal jarduera ofizioz egiten denean edo interesa daukan hirugarren batek eskatzen duenean.

4. Tasa ordaintzeko betebeharra sortuz gero, ez du betebehar horretan inolako eraginik izango eskatutako baimena ukatzeak, ez eta baimena aurkeztutako proiektua aldatzeko baldintzaren pean esleitzeak ere, eta baimena esleituz gero eskatzaileak baimenari uko egiteak edo atzera egiteak ere ez.

5. Eskatzaileak baimenari atzera egiten badio lizentzia eman baino lehenago, ordaindu behar diren kuotak dira %50, 4. artikuluan adierazitakoak, baldin eta udal jarduera benetan hasi bada.

ADIERAZPENA

1. Obra baimena eskuratu nahi duten pertsonak eskabidea edo aurretiko jakinarazpena edo beharreko erantzukizuneko adierazpena aurkeztu beharko dute Erregistro Orokorrean, dagokion elkargoak obrak onetsi dituenaren ziurtagiriarekin batera, eta, 2/2006 legearen 201. artikulua xedatzen duen bezalaxe; horretan zehatz-mehatz adierazi beharko dute obraren izaera, obra hori non den egitekoa, obrak ustez balioko duen zenbatekoa, obraren neurriak eta obra egingo den eraikinaren erabilera.

2. Dena delako lizentzia hori eskuratzeko teknikari eskudunaren proiektua aurkeztu beharreko denean, eskabidearekin, aurretiko jakinerazpenarekin edo erantzukizuneko adierazpenarekin batera egitekoa den obraren aurrekontu orientatiboa aurkeztuko da, eta bertan honako hauek zehaztuko dira: obrak ukituko duen eremuaren deskripzioa, departamentu kopurua, erabiliko diren materialak eta, oro har, obraren edo dena delako ekintzetan ezaugarriak, materialen kostua egiaztatzeko modua emango dutenak.

3. Lizentziaren eskabidea, aurretiko jakinerazpena edo erantzukizuneko adierazpena egin eta gero proiektua aldatzen edo handitzen bada, Udal administraziori jakinarazi egin beharko zaio hori, eta aurrekontu berria edo lehengoa aldatuta aurkeztu beharko zaio, eta, hala balegokio, aldaketaren edo handitzearen plano eta memoriak ere bai.

4. Eskabideak egin ditzakete, obra, instalazio eta eraikuntzan interesa duten jabeek zein pertsona fisikoek edo pertsona juridikoek, eta baita arkitektoek, injineruek eta horietaz enkargatzen diren kontratistek, baldin eta haiek behar bezala baimenduta badaude, egoera hori jasota egon behar da eskabidean, eta baita jabearen edo ugazaben identitatea eta helbidea ere, formulatutako eskaerari on iritziarekin.

Aipatutako pertsonen ordezkapena Udalari jakinaraziko zaio; eta baita obraren kontratisten identifikazioa ere.

5. Isiltasun administratibo positiboaren aplikazioagatik emandako lizentzien formalizazioak, hala nola, Udalak emango dituen lizentzien balio bera izango du zergaren likidaziorako; irizpide bera izango dute honako hauek: haiek ukitzen dituzten errenuntziak, iraungipen-adierazpenak, proiektuen aldaketak.

VII. TASA LIKIDATU ETA ORDAINTZEA

7. artikulua

1. Lizentziaren eskaera, aurretiko jakinerazpena edo erantzukizunezko adierazpena formulatu ondoren, dagokion tasaren behin-behineko likidazioa egingo da, hala ere, behin betiko likidazioa egin daiteke, baldin eta hasieran aurkeztutako dokumentazioan aldaketak badaude.

2. Egiten diren likidazio guztiak jakinarazi egingo zaio zergadun subjektu pasiboari edo zergadunaren ordezkari kasua balitz, Udaren kutxan ordainketan egin dezan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketako Araudiak zehazten dituen bitartekoak erabiliz eta araudi horrek zehazten dituen epeen barruan.

VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

8. artikulua

Zergen Arloko arau hausteak eta horiei dagozkiekeen zigorrak kalifikatzeaz den bezainbatean, Zergen Foru Arau Orokorrak 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

IX. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2017ko urriaren 24an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2018ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

Aurrekontuen gaineko Foru Arauek edo zuzenean aplikatu beharreko bestelako arau edo xedapenen batek aldaketaren bat eragiten badu tasa honen araubidean, ezer adierazi barik aldatuko da Zerga Ordenantza hau.